

Ingurune berdeek osasunean nola eragiten duten aztertu dute

INMA proiektuan, ingurune naturalek haurren osasunean duten onura ikertu dute. Izan ere, ikerketa ugari egin dira osasunean eragin kaltegarria duten ingurumen-aldagaiak aztertzeko, baina ez alderantziz. Hutsune hori betetzeko asmoz, ingurune berdeen eraginari buruzko azterketa epidemiologikoa egin du ikertzaile-talde batek.



San Martin parkea, Gasteiz. ARG.: Gazteizko udala.

Ikertetan, datu objektiboak eta subjektiboak bildu dituzte: partaidearen etxebizitza inguruko berdetasun-maila, 300 metroko inguruan gune berderik duen ala ez, pertzepzio subjektiboa...


Bestalde, gune berdeek osasunean zein bitartekariaren bidez eragiten duten aztertu dute: ingurumenarekiko esposizioa (CO₂-a xurgatzea, trafikoa, temperatura eta hezetasuna); jarduera fisikoa; gizarte-kohesioa; eta estresa arintzea eta atentzioa berreskuratzea. Osasuna neurtzeko, berriz, sei arlori erreparatu diete: ugalketa-osasuna, jarduera fisikoa, osasun mentala, asma eta alergia, ondorio kardiobaskularrak eta hilkortasuna.

Azkenean, ikusi dute bitartekari garrantzitsuenetako bat berrezarpenaren gaitasuna dela. Horrez gain, jarduera fisikoa eta aire-kutsadura dira aipatuenak, eta, bigarren mailan, zarata, giza kohesioa eta depresioa. ●

Zika birusa harreman sexualen bidez hedatzeko arrazoia argitu dute

Zika birusak giza baginaren traktua estaltzen duten zelulak infektatzen dituela argitu dute AEBko ikertzaileek. 2015an Asiatik Amerikara hasitako zabalkunde epidemikoaren aurretik ere, bazekiten Zika birusa, eltxoez gain, harreman sexualen bidez ere kutsatzen zela; baina ez zekiten nola gertatzen zen transmisioa. Izan ere, ez da ohikoa Flabivirus familiako birusen artean harreman sexualen bidez transmititu ahal izatea: Zika eta C hepatitisaren birusak dira bakarrak.

Oraingoan, [birusari zeluletarako sarbidea ematen dion molekula identifikatu dute](#): UFO hartzailea da, baginako zeluletarako mintz plasmatikokoan azaltzen den proteina bat. Hari lotuta lortzen du birusak bere mintza zelularen mintzarekin fusionatu eta barrura sartzea. Ikertzaileen arabera, birusa baginako epitelioan erreplikatu eta kopuru handitan sortzea da, gero, birusaren infekzioa gorputz osora zabaltzeko lehenengo urratsa.



ARG.: iStock.

Birusaren sarbiderako mekanismo molekularra argitu izanak aukera eman lezake UFO hartzailea blokeatzen duten antigorputzak sortu eta Zikaren aurkako tratamenduak garatzeko; oraingoz, ez baitago tratamendurik. ●



[COVID-19aren inguruko albisteak, webgunean](#)